Xedeei dagokienez, aipatu behar da trenbidez egiten diren desplazamenduen %57,2 derrigorrezko mugikortasunari zor zaizkiola, eta horietatik %34,8 lana dela-eta egiten dira, eta %22,4, berriz, ikasketak direla eta.

### Grafikoa 24

**Desplazamenduen banaketa trenbide bidezko modu kolektiboetan xedearen arabera**




Hasteko, nabarmendu behar da trenbidea eskualdearen alorrean erabiltzen dela gehien, hau da, %51,6. Ondoren, eta hemen bai, Bilboko Metroaren eta Tranbiaren presentzia erabakigarria da, udalerri barruko erabilerak agertzen dira, %31,1rekin. Honenbestez, portzentajerik txikiena probintzia arteko alorrak hartzen du, erabileren %2,8rekin. Ildo horretan, zerbitzuen eskaintza erabakigarria da berriro ere. Izan ere, probintzia arteko loturen erdia Araba eta Bizkaia artean gertatzen da; gainerakoan, Bizkaia eta Gipuzkoa artean gertatzen direnak dira bakarrik aipatzeko modukoak.

Azterketa honetan azpimarratu behar da trenbidearen presentziaren lurralde banaketa, esan dugun bezala, argi eta garbi baldintzatzen duela eskuragarri den garraio eskaintzak. Hala, trenbide bidezko desplazamenduen %83,3 Bizkaian gertatzen da, %15,9 Gipuzkoan eta %0,8 Araban.

## Taula 24

**Desplazamenduen banaketa trenbide bidezko modu kolektiboetan lurraldearen arabera**

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %31,1 |
| Eskualde barrukoa | %51,6 |
| Probintzia barrukoa | %14,4 |
| Lurralde artekoa | %2,8 |
| Kanpokoa | %0,1 |
| Guztira | %100,0 |

## 5.3.2 Banakakoak

Aipatu dugun bezala, distantzia erdiko eta luzeko erlazioek dakartzaten mugikortasun beharrak betetzeko gehien baliatzen den modua da eta EAE osoko desplazamenduen %39,8ra iristen da.

Talde honetan, automobila dugu erabateko protagonista, %97,5ekin; hori dela eta, azterketaren zatirik handiena autoari eskainiko diogu. Banakakoen artean baita ere, motorraren presentzia %2,5 da.

### 5.3.2.1 Automobila

EAEn 2.362.842 mugimendu izaten da egunero automobilez, taxian egiten direnak barne. Ibilgailu pribatuaren erabilera erabat zabaldurik dago, hala lurraldeei dagokienez nola xedeen ikuspegitik begiratuta. Azken aldagai horri erreparatuta, aipagarria da autoz egindako desplazamenduen %47,5 lanera joateko direla.

## Grafikoa 25

**Automobil bidezko desplazamenduen banaketa xedearen arabera**



Udalerrian automobila erabiltzen da desplazamenduen %32,2an. Eskualde barruko desplazamenduetan %38ra iristen da portzentajea. Hau da, ibilgailu pribatua erabiltzeko erabiltzen deneko desplazamenduen %70,2 eskualde mailakoak dira.

**Taula 25**

### Automobil bidezko desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %32,2 |
| Eskualde barrukoa | %38 |
| Probintzia barrukoa | %19,3 |
| Lurralde artekoa | %5,7 |
| Kanpokoa | %4,8 |
| Guztira | 100,0 |

Hiriburuei dagokienez, Gasteiz da, %29,7rekin, udalerri barruko desplazamenduak egiteko ibilgailu pribatua gehien erabiltzen den hiria, eta haren ondoren dator Donostia (23,8%). Dena den, nabarmentzeko modukoa da Bilbon urria dela autoaren erabilera, %10,5eko portzentajearekin, eta hori gertatzen da, neurri handi batean, desplazamenduetarako trenbidea erabili ahal izateari esker.

## 5.3.2.2 Motorra

Motorraren erabilera bilakaera aipagarria izaten ari da zenbait alorretan, eta hortik datoz atal honetako datuak. Modu honetan egindako desplazamenduak 60.370 dira.

Xedeei dagokienez, kasuen %63,7an derrigorrezko mugikortasunaz ari gara, eta ondoren dator aisia (%17,3) eta gestio pertsonalak (%10,6), erosketen oso gainetik, azken alor hori apenas nabari baita.

**Grafikoa 26**

### Motor bidezko desplazamenduak xedearen arabera



Motorrez egindako desplazamenduen %68,4 udalerri barrukoak dira, eta %26,5 eskualde barrukoak. Hau da, motorrez egindako mugimenduen %94,9 eskualdetik irten gabe egiten dira.

## Taula 26

### Motor bidezko desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %68,4 |
| Eskualde barrukoa | %26,5 |
| Probintzia barrukoa | %3,3 |
| Lurralde artekoa | %1,8 |
| Guztira | %100,0 |

Modu honek presentzia nabarmena du Donostian, bertako sartze kuota %4,8 baita; bai Gasteizen bai Bilbon, berriz, portzentajea %1etik beherakoa da. Beraz, ezin daiteke inondik inora esan hiru hiriburuetako batean ere garrantzi kuantitatiborik duenik.

## Grafikoa 27

### EAEko desplazamenduen banaketa xedearen arabera



## Grafikoa 28

### Desplazamenduen banaketa sorburu den eskualdearen eta xedearen arabera



**Grafikoa 29**

## Desplazamenduen banaketa helburu den eskualdearen eta xedearen arabera



## 5.4 Motiboen arabera

EAEn, lana dugu desplazamenduak egiteko motibo nagusia, eta motibo horrek hartzen du, hain zuzen ere, portzentaje osoaren %30,6. Normala da hori, baina agerian dago, halaber, aisiarekin lotutako motiboak hartzen ari diren garrantzia. Motibo hori bigarren lekuan dago dagoeneko, eta %22,4 hartzen du. Hirugarren motiboa ikasketa zentrora joatea da, %17,3rekin.

### 5.4.1 Lana

Lanera joateko xedeak 1.864.222 desplazamendu eragiten du guztira (%30,6), eta lurralde guztietan antzera banatzen da, nahiz eta Gipuzkoako datuetan laneko mugikortasuna errepikariagoa dela dirudien, %35,8ko portzentajearekin; Bizkaian, berriz, portzentajea %29 da eta Araban %25,6, lurralde bakoitzeko totalarekiko.

Mugikortasun mota honen banaketa modala automobilean oinarritzen da nagusiki, %60,1ekin, eta oinezko moduak, berriz, %20,7 hartzen du. Hirugarren lekuan trenbidea dago (%8,7) eta autobusa (%6,3). Garbi dago, beraz, laneko alorrean automobilak presentzia nabarmena duela.

**Grafikoa 30**

**Lana xede duten desplazamenduen banaketa moduaren arabera**




Lurraldeari dagokionez, laneko desplazamenduak udalerrian bertan (%45,6) eta eskualdeko gainerako udalerrietan (%34,5) egiten dira funtsean. Lurralde bereko eskualde banako bi udalerriren artean gauzatzen direnak %14,3 dira, eta soilik %3,9 dira lurralde biren artean egiten direnak. Udalerriko desplazamenduetan, lana da udalerrian egiten diren desplazamenduen artean garrantzi txikiena duen xedea.

Taula 27

**Lana xede duten desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera**

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %45,6 |
| Eskualde barrukoa | %34,5 |
| Probintzia barrukoa | %14,3 |
| Lurralde artekoa | %3,9 |
| Kanpokoa | %1,7 |
| Guztira | %100,0 |

## 5.4.2 Aisia

Mugikortasunari buruzko inkesta gehienek adierazten dutenez, aisia dugu desplazamenduen portzentajean gora egiten ari den motiboa. Kasu honetan, 1.366.408 zifraraino iristen da (%22,4), dagoeneko ikasketa motiboaren gainetik, eta horrek ematen du daukan garrantziaren neurria.

Aisiagatiko desplazamenduen banaketa modalari dagokionez, nabarmendu beharra dago %67,4 oinez egiten direla, eta hori dugu portzentajerik handiena aztertutako xedeen artean. %21,7 automobilez egiten da.

Grafikoa 31

**Aisia xede duten desplazamenduen banaketa moduaren arabera**




Aisiak eragindako desplazamenduen %91,2 eskualdeko bertako puntu bat dute sorburu eta helburu; horien artean %72,9 udalerriari dagokio, eta horrek oinezko moduari bide ematen dio. Beraz, distantzia labur samarreko ibilbideez ari gara, batez ere gehiago lanekoekin konparatzen baditugu.

## Taula 28

### Aisia xede duten desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %72,9 |
| Eskualde barrukoa | %18,3 |
| Probintzia barrukoa | %5,2 |
| Lurralde artekoa | %1,9 |
| Kanpokoa | %1,7 |
| Guztira | %100,0 |

Lurraldeka hartuta, motiborik homogeneoenetakoa da, hiru lurraldeetan antzera baitabil. Hala, desplazamenduen %24,6 Bizkaian, %22,3 Araban eta %20,9 Gipuzkoan, aisiatzat har daitekeen jardueraren bat egitea dute helburu. Beraz, hiru lurraldeetako edozeinetan, desplazamenduen bosten batetik gora motibo horri zor zaio.

## 5.4.3 Ikasketak

Epígrafe honen pean sailkatutako desplazamenduak 1.050.335 (%17,3) dira. Ikasketen alorrean, desplazamendu mota hau egiten duen kolektiboaren espezifikotasuna dela-eta, banaketa modala oso bestelakoa da gainerako motiboen aldean. Automobilaren presentzia %19,1 da bakarrik. Hala, modu kolektiboek, autobusak eta trenbideak, nabarmentzeko moduko presentzia daukate, %22,7 eta %10 hurrenez hurren, eta beste motiboetan halakorik ez da gertatzen.

## Grafikoa 32

### Ikasketak xede dituzten desplazamenduen banaketa moduaren arabera




Lurraldeari dagokionez, ikasketek eragiten dituzten desplazamenduen %89 eskualdean bertan gertatzen da, eta horietatik %70,5 udalerrian bertan.

Taula 29

### Ikasketak xede dituzten desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %70,5 |
| Eskualde barrukoa | %18,5 |
| Probintzia barrukoa | %7,1 |
| Lurralde artekoa | %3,2 |
| Kanpokoa | %0,7 |
| Guztira | %100,0 |

## 5.4.4 Gestio pertsonalak

EAEn, xede honek 919.736 desplazamendu eragiten du, hau da, guztien %15,1, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da mugikortasunaren motibokako banaketan.

Mugikortasun eskaera honi zein moduren bidez erantzuten zaion aztertuz gero, aipatu behar da automobila dela berriro ere nabarmentzen dena, desplazamendu mota honen %48,9 hartzen baitu, eta hurrengoa oinezko modua da, %29,4rekin.

Grafikoa 33

### Gestio pertsonalak xede dituzten desplazamenduen banaketa moduaren arabera




Lurralde atalari dagokionez, motibo honek baditu zenbait antzekotasun laneko moduak eskaintzen duen banaketarekin, udalerriko loturen presentzia txiki samarra baita eta eskualdekoena, berriz, handia. Bien artean desplazamenduen %79,9 biltzen dute.

Taula 30

### Gestio pertsonalak xede dituzten desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %51,0 |
| Eskualde barrukoa | %28,9 |
| Probintzia barrukoa | %11,6 |
| Lurralde artekoa | %3,2 |
| Kanpokoa | %5,3 |
| Guztira | %100,0 |

## 5.4.5 Erosketak

Erosketek aisiarekin partekatu ohi dute epigrafea, nahiz eta, kontzeptualki behintzat, badirudi ez duela zertan horrela izan behar. Atal honetan 552.854 desplazamendu dago, hau da, EAEn batez besteko egun batean egiten diren guztien %9,1.

Xede honen banaketa modalean, modu kolektiboen presentzia oso txikia da, hau da, autobusak %6,8 biltzen du eta trenbideak %6,1. Oinezko modua da, %55,3rekin, sarrien erabiltzen dena, eta ondoren, nahiz eta urrutira egon, automobila.

Grafikoa 34

### Erosketak egitea xede duten desplazamenduen banaketa moduaren arabera




Desplazamenduen %92k eskualdeko dimentsioa du, eta %71,3k udalerrikoa, eta horrek, berriz ere, badu antzekotasunik aisialdi moduarekin. Lurralde alorrean, ezin daiteke esan desberdintasun nabarmenik dagoenik.

## Taula 31

### Erosketak egitea xede duten desplazamenduen banaketa lurraldearen arabera

| Desplazamendu mota | % |
|---|---|
| Udalerri barrukoa | %71,3 |
| Eskualde barrukoa | %20,7 |
| Probintzia barrukoa | %5,9 |
| Lurralde artekoa | %1,1 |
| Kanpokoa | %1,0 |
| Guztira | %100,0 |

# 5.5 Lurralde azterketa

Lurralde azterketa zentratzen da EAEn bizi diren pertsonek egindako desplazamenduetan, hain zuzen ere, sorburua eta helburua lurraldean bertan duten desplazamenduetan. Halako desplazamenduak 5.961.785 dira, hau da, guztien %97,9. Gainerako 125.815 (%2,1) desplazamenduak lurraldetik kanpora irteten dira. Euskal lurraldeari dagokionez, aipatu behar da %61,7 udalerrian bertan egiten dela; %25,6, berriz, beste udalerri batekin lotzen da, baina eskualde berean. Hau da, desplazamenduen %87,3 eskualde barruan egiten dira. %9,7k Lurralde bereko baina eskualde banako udalerrietan du sorburua eta helburua. Bestalde, desplazamenduen %3k Lurralde Historiko banatako udalerriak dituzte sorburu edo helburu, beti ere EAE barruan.

## Grafikoa 35

### EAEko desplazamenduen banaketa tipologiaren arabera



**Grafikoa 36**

## Distribución de desplazamientos según comarca de origen y tipo de desplazamiento



**Grafikoa 37**

## Desplazamenduen banaketa helburu duten eskualdearen eta desplazamendu motaren arabera



Atal honetan lurralde barruko mugimendua aztertuko da motiboaren eta moduaren arabera, EAEko barne desplazamenduen %97 baitira. Azterketa egiteko esparruak Lurralde Historikoa, eskualdea eta hiriburuetako bakoitza izango dira, eta esparru bakoitzari dagozkion barne desplazamenduak hartuko dira erreferentziatzat.

EAEn lurralde barruko 5.781.485 desplazamendu egiten dira guztira, eta horrek esan nahi du desplazamenduen sorburua nahiz helburua probintzia berean dagoela.

Lurralde Historikoka, Araba dugu barne desplazamenduen portzentaje txikiena agertzen duena parte hartzen duen guztiekiko, %85,0rekin. Bizkaia eta Gipuzkoa oso maila antzekoetan dabiltza, hots, %93,8 eta %93,1ekin.

Espero daitekeen bezala, desplazamenduak egiteko motiboak oso antzekoak dira hiru Lurraldeetan, eta laneko motiboa da nagusi, eta ondoren aisia eta ikasketak. Portzentualki, Gipuzkoan dago lanera joateko xedeak eragindako mugikortasunik handiena, Arabaren eta Bizkaiaren aldean.

## Taula 32

### Barne desplazamenduen banaketa xedeka lurraldearen arabera

| Xedea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Lana | 220.772 | 885.363 | 653.892 | 1.760.027 |
| Aisia | 187.962 | 739.951 | 388.518 | 1.316.432 |
| Ikasketak | 142.806 | 518.998 | 347.180 | 1.008.984 |
| Gestio pertsonalak | 133.048 | 479.085 | 228.938 | 841.071 |
| Erosketak | 92.350 | 304.595 | 144.380 | 541.325 |
| Besteak | 47.929 | 105.950 | 68.159 | 222.038 |
| EE | 15.449 | 47.621 | 28.539 | 91.608 |
| Guztira | 840.315 | 3.081.563 | 1.859.606 | 5.781.485 |

## Grafikoa 38

### Desplazamenduen banaketa xedeka Araban



## Grafikoa 39

### Desplazamenduen banaketa xedeka Bizkaian




## Grafikoa 40

### Desplazamenduen banaketa xedeka Gipuzkoan




Lurraldeen araberako azterketa modalean, aipatu beharra dago Araban oinezko moduak duen protagonismoa, zalantzarik gabe, Gasteizen eragina dela-eta, eta aipatu behar da baita trenbidearen erabilera nabarmena Bizkaian.

## Taula 33

### Barne desplazamenduen banaketa moduka Lurralde Historikoaren arabera

| Modua | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Oinez | 452.716 | 1.300.557 | 761.053 | 2.514.326 |
| Bizikletaz | 21.708 | 7.260 | 23.441 | 52.408 |
| Automobila | 299.161 | 1.078.051 | 738.601 | 2.115.813 |
| Autobusa Diskrezionala | 18.759 | 58.893 | 83.883 | 161.535 |
| Errepideko Garraio publikoa | 40.486 | 216.480 | 142.339 | 399.305 |
| Trenbidezko Garraio publikoa | 954 | 383.491 | 70.693 | 455.138 |
| Besteak | 6.533 | 36.832 | 39.596 | 82.961 |
| Guztira | 840.315 | 3.081.563 | 1.859.606 | 5.781.485 |

## Grafikoa 41

### Desplazamenduen banaketa moduka Araban




## Grafikoa 42

### Desplazamenduen banaketa moduka Bizkaian




## Grafikoa 43

### Desplazamenduen banaketa moduka Gipuzkoan



## 5.5.1 Araba

Barne desplazamenduen azterketari dagokionez, Arabaren kasuan, hiriburuak berak parte hartzen du, sorburu gisan nahiz helburu gisan, desplazamenduon %87,7an. Gainera, probintziako barne desplazamendu guztien %79k hiriburua du helburu. Hortaz, bidaia sortzaile edo hartzaile diren aldeak aipatzerako orduan, zaila da, aipatutako hiriburuaz aparte, besterik topatzea. Azterketa eskualdeko ikuspegira hedatuz gero, Arabako Lautada protagonista gisan agertzen da kasuen %89,8an. Barne desplazamenduetan zertxobait agertzen den eskualdea Kantauri Arabarra da, probintzia barneko bidaien %7,5 hartzen baitu. Honenbestez, eskualde bion artean, barnean egindako desplazamendu guztien %97,3 biltzen dute.

Gainerakoen artean, nabarmentzeko modukoa da Arabar Errioxan egiten diren desplazamenduen eskualde barruko izaera, horko loturen %93,9 eskualde barruan egiten dira eta. Gorbeialdean, loturen %77,4k probintziako hiriburua du sorburu edo helburu, eta barnekoak %15,3 dira soilik. Bai Arabako Mendialdeak bai Arabako Bailarek bidaiak sortu edo erakartzeko ahalmen gutxi daukate; hala, bertako desplazamenduetan, hiriburuaren presentzia garrantzitsua da, %55,3 eta %54,5, hurrenez hurren.

Kanpoko ikuspegitik, eranskinean ikus daitekeen legez, badira eskualde batzuk, lurralde arteko erlazio bolumen nahiko garrantzitsua daukatenak EAEko beste probintziekin. Hala, Arabako Lautadak badu garrantzi handi samarreko trukerik Bilbo Handia, Debagoiena, Donostialdea, Arratia-Nerbioi eta Durangaldearekin. Aipatu behar dira, gainera, eskualde horretatik kanporako loturak, batez ere Burgos ingururakoak. Bestalde, Kantauri Arabarrako eskualdeak erlazio gehiago du Arratia-Nerbioi edo Bilbo Handiarekin Lautadarekin berarekin baino, Lautada hirugarren kanpo erreferentzia baita.

**Taula 34**

### Desplazamenduak eskualdeka. Araba

| Sorburua \ Helburua | Kantauri Arabarra | Gorbeia Inguruak | Vitoria-Gasteiz | Arabako Lautada | Arabako Mendialdea | Arabar Errioxa | Arabako Bailarak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kantauri Arabarra | 53.989 | | 4.535 | | | | | 58.524 |
| Gorbeia Inguruak | | 4.934 | 12.687 | | | | 977 | 18.599 |
| Vitoria-Gasteiz | 4.416 | 12.165 | 664.159 | 12.257 | 2.776 | 612 | 3.132 | 699.516 |
| Arabako Lautada | | 385 | 12.692 | 17.078 | 265 | | 153 | 30.574 |
| Arabako Mendialdea | | | 2.510 | 249 | 3.765 | | | 6.523 |
| Arabar Errioxa | | | 1.113 | | | 17.107 | | 18.220 |
| Arabako Bailarak | | 942 | 3.745 | 153 | | 126 | 3.394 | 8.360 |
| Guztira | 58.405 | 18.427 | 701.440 | 29.737 | 6.806 | 17.845 | 7.656 | 840.315 |

Arabako Lautadak dituen metropoliko erlazioei dagokienez, udalerriaz gaindiko beste bi alorrekiko loturan (Bilbo Handia eta Donostialdea), aipatu behar da Bilbo Handiko inguruak hartzen duen garrantzia, inguru horrekin gauzatzen baitira metropolitar trukeen %78,2. Bidaia horietako banaketa modalean, nabarmentzeko moduko garrantzia hartzen du garraio kolektiboak, baina halakorik ez da gertatzen, inondik inora ere, Donostialdearekiko loturan.

## Taula 35

### Arabako Lautada eskualdeko metropolitar desplazamenduak

| Modua | Bilbo Handia | | Donostialdea | |
|---|---|---|---|---|
| | Desplazamenduak | % | Desplazamenduak | % |
| Automobila | 6.172 | %47,6 | 2.957 | %82,0 |
| Taldekoak | 6.116 | %47,1 | 497 | %13,8 |
| Besteak | 689 | %5,3 | 154 | %4,2 |
| Guztira | 12.977 | %100,0 | 3.608 | %100,0 |

Jarraian, hiriburuko barne banaketa modala azaltzen da, non automobilak %29,7 hartzen duen, modu ez motorizatuen oso azpitik, ez motorizatuek %61,9 biltzen baitute. Garraio kolektiboa, berriz, %7,5 da.

## Grafikoa 44

### Gasteizko barne desplazamenduen banaketa garraio moduaren arabera



## 5.5.2 Bizkaia

Bizkaiari dagokionez, desplazamenduen protagonismoa Bilbo Handia eskualde osoan dago hiriburuan bertan bainoago. Hala, Bizkaia barruan egiten diren desplazamenduen %42,6aren sorburua edo helburua Bilbo bada ere, eskualde osoa da desplazamenduen %83,5en sorburu edo helburua, eta eskualde barnekoak Bizkaian egiten diren guztien %74,5 dira. Beraz, Lurralde Historikoaren zentraltasuna eskualdean dagoela berresten da. Gainerakoen artean, Durangaldeko eta Plentzia-Mungiako eskualdeek badute bidaiak sortu eta erakartzeko ahalmenik. Hala, aipatutako lehenak lotura fluxu handia du Debagoieneko eskualdearekin, Bilbo Handia inguruaren ondoren erreferentzia nagusia den eskualdearekin. Plentzia-Mungiari dagokionez, ez du Lurraldeaz kanpoko erreferentzia aipagarririk, eta soilik Gernika-Bermeo eskualdearekin trukatzen ditu desplazamenduak, hiriburua alde batera utzita, noski.

### Taula 36

### Desplazamenduak eskualdeka. Bizkaia

| Sorburua \ Helburua | Arratia-Nerbioi | Durangaldea | Enkartazioak | Gernika-Bermeo | Bilbo | Bilbo Handia | Markina-Ondarroa | Plentzia-Mungia | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arratia-Nerbioi | 44.652 | 1.576 | | | 8.225 | 16.123 | 813 | | 71.389 |
| Durangaldea | 916 | 174.289 | | 5.247 | 15.873 | 18.879 | 3.454 | 260 | 218.919 |
| Enkartazioak | | | 44.407 | 735 | 5.678 | 9.979 | | 450 | 61.249 |
| Gernika-Bermeo | | 5.392 | 761 | 85.845 | 5.787 | 7.818 | 1.291 | 1.695 | 108.588 |
| Bilbo | 6.377 | 14.171 | 6.016 | 7.083 | 756.432 | 227.682 | 2.805 | 15.383 | 1.035.950 |
| Bilbo Handia | 15.719 | 19.294 | 9.946 | 6.614 | 228.785 | 1.084.684 | 2.889 | 31.216 | 1.399.147 |
| Markina-Ondarroa | 980 | 2.711 | | 1.250 | 2.744 | 3.191 | 41.770 | | 52.646 |
| Plentzia-Mungia | 109 | 899 | 293 | 3.448 | 11.634 | 33.068 | | 84.225 | 133.676 |
| Guztira | 68.754 | 218.333 | 61.422 | 110.222 | 1.035.158 | 1.401.424 | 53.022 | 133.229 | 3.081.563 |

Metropolitar loturei dagokienez, adierazi beharra dago Bilbo Handi inguruak erlazio maila handiagoa duela Arabako Lautadarekin, Donostialdearekin baino. Lotura horietan, alde erantzira deskribatzen zenaren oso antzera, modu kolektiboek eta ibilgailu pribatuak ia erdibana partekatzen dute desplazamendu kopurua. Donostialdearekiko erlazioetan, ibilgailu pribatuaren alternatiba diren moduek ere protagonismo nabarmena hartzen dute, nahiz eta aurrez aipatutakoa baino aski txikiagoa izan.

### Taula 37

### Bilbo Handiko eskualdeko metropolitar desplazamenduak

| Modua | Arabako Lautada | | Donostialdea | |
|---|---|---|---|---|
| | Desplazamenduak | % | Desplazamenduak | % |
| Automobila | 6.457 | %48,2 | 3.949 | %62,4 |
| Taldekoak | 6.502 | %48,5 | 2.061 | %32,6 |
| Besteak | 445 | %3,3 | 315 | %5,0 |
| Guztira | 13.404 | %100,0 | 6.325 | %100,0 |

Bestalde, Bilbon, desplazamenduen %59,2 era ez motorizatuan egiten dira, eta garraio kolektiboak horien %29,2 hartzen du. Horren guztiaren eraginez, barne erlazioetan automobilaren presentzia %10,5 da.

**Grafikoa 45**

## Barne desplazamenduen banaketa Bilbon, garraio moduaren arabera



## 5.5.3 Gipuzkoa

Mugikortasuna, Gipuzkoan, lurralde hori osatzen duten eskualdeetan egituratuta dago. Bidaiak sortu eta erakartzeko Donostiak eta Donostiako eskualde osoak gainerakoek baino garrantzi handiagoa badu ere, gainerako eskualdeen garrantzia ere esanguratsua da. Hala, hiriburua Bilboko maila -Bizkaiarekiko- erlatibo antzekoetan jartzen bada ere, bidaien %39,7 sortu eta erakarriz, Donostialdeko totala Gipuzkoako gainerako eskualdeen pare dago. Hiriburuak eta hiriburuaren eskualdeak sortutako edota erakarritako desplazamenduak probintziako totalaren %54,2 dira. Donostialdeko barne bidaiak %45,2 dira, hiru lurraldeetan portzentajerik txikiena. Gipuzkoako eskualde guztiek daukate pisu erlatibo handiagoa bidaien sorkuntzan beren Lurralde Historikoarekiko, Araba edo Bizkaiko edozeinek baino, Tolosaldeak salbu, Tolosaldea pixka bat beherago baitago Kantauri Arabarra Arabarekiko baino.

Gipuzkoan, beste bi Lurraldeen aldean, bidaiak sortu eta erakartzeko ahalmenari dagokionez eskualde-homogeneotasun handiagoa egoteaz gain, azpimarratu behar da eskualde gehienetan lurraldeaz kanpoko eskualdeen presentzia hor dagoela, batez ere muga egiten dutenetan. Hala, Debagoienak eta Debabarrenak badituzte lotura batzuk gehiago Durangaldearekin elkarrekin baino, eta, Debagoienari dagokionez, Donostialdearekin baino askoz ere gehiago. Bidasoa Beherearentzat, bertako udalerriez gainera, Donostialdea bai da desplazamenduak trukatzeko ingurua, eta horri gehitu behar zaizkio Nafarroako Baztango kanpoaldeko inguruak eta Iparraldea.

Goierri, Tolosaldea eta Urola–Kosta dira kanpo erreferentzia gutxien azaltzen duten eskualdeak; egon badago desplazamendu trukerik lehenengo bien artean eta baita halako sakabanatze bat ere, Deba ibarrera eta neurri txikiagoan Goierrirako joerarekin, Urola-Kostaren kasuan.

**Taula 38**

### Desplazamenduak eskualdeka. Gipuzkoa

| Sorburua \ Helburua | Debagoiena | Bidasoa Beherea | Debabarrena | Donostia | Donostialdea | Goierri | Tolosaldea | Urola Kosta | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Debagoiena | 149.719 | 247 | 5.301 | 710 | 404 | 2.962 | 474 | 857 | 160.675 |
| Bidasoa Beherea | 249 | 139.052 | | 15.062 | 10.868 | 343 | 1.093 | 790 | 167.457 |
| Debabarrena | 5.483 | | 132.920 | 5.308 | 1.553 | 222 | 356 | 5.794 | 151.636 |
| Donostia | 213 | 14.519 | 5.323 | 454.517 | 84.291 | 10.987 | 11.264 | 14.451 | 595.565 |
| Donostialdea | 334 | 10.640 | 1.082 | 84.640 | 218.131 | 2.771 | 8.204 | 2.535 | 328.337 |
| Goierri | 2.757 | | 232 | 10.723 | 2.247 | 156.318 | 6.118 | 1.492 | 179.886 |
| Tolosaldea | 495 | 955 | 392 | 11.895 | 8.974 | 5.597 | 80.664 | 1.343 | 110.314 |
| Urola Kosta | 1.008 | 696 | 5.745 | 14.257 | 3.176 | 1.955 | 974 | 137.925 | 165.736 |
| Guztira | 160.257 | 166.109 | 150.995 | 597.112 | 329.644 | 181.153 | 109.149 | 165.187 | 1.859.606 |

Donostialdeko eskualdetik sortzen dira desplazamendu gutxien beste metropolietarantz, hau da, 10.433. Gainera, ibilgailu pribatua gehien erabiltzen de metropoli gunea da, beste bien aldean.

## Taula 39

### Donostialdeko metropolitar desplazamenduak

| Modua | Arabako Lautada | | Bilbo Handia | |
|---|---|---|---|---|
| | Desplazamenduak | % | Desplazamenduak | % |
| Automobila | 4.644 | %87,4 | 3.164 | %61,8 |
| Taldekoak | 514 | %9,7 | 1.957 | %38,2 |
| Besteak | 154 | %2,9 | | %0,0 |
| **Guztira** | **5.312** | **%100,0** | **5.121** | **%100,0** |

Hiribururako barne desplazamenduetan, %45,2 modu ez motorizatuan egiten da, %25,5 garraio kolektiboan eta automobila %23,8ra iristen da.

## Grafikoa 46

### Donostiako barne desplazamenduen banaketa garraio moduaren arabera



## 5.5.4 Hiru hiriburuak helburu dituzten desplazamenduak

Hiribururako desplazamenduak EAEn bizi direnek egiten dituzten bidaia guztien %39,7 dira. Barne desplazamenduak eta maila metropolitarrean duten interrelazioa aztertu dira. Atal honetan aztertu nahi izan ditugu hiriburu bakoitzera kanpotik joateko moduak, EAEtik kanpoko guneak ere kontuan hartuz. Jarraian datorren taulan azaltzen da hiriburuetarako desplazamenduak zenbat diren guztira, barne mugimenduak ere kontuan hartuta.

**Taula 40**

### Hiriburuetarako desplazamenduen banaketa, barnekoak ere kontuan hartuta[3]

| | Probintzia | Eskualdea | Vitoria-Gasteiz | Bilbo | Donostia | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | ARABA | Kantauri Arabarra | 4.535 | 2.856 | | 7.390 |
| | | Gorbeia Inguruak | 12.687 | N.R. | | 12.957 |
| | | Arabako Lautada | 676.851 | 4.541 | 2.983 | 684.376 |
| | | Arabako Mendialdea | 2.510 | | | 2.510 |
| | | Arabar Errioxa | 1.113 | | | 1.113 |
| | | Arabako Bailarak | 3.745 | | | 3.745 |
| | GUZTIRA | | 701.440 | 7.668 | 2.983 | 712.091 |
| | BIZKAIA | Arratia-Nerbioi | 2.515 | 8.225 | | 10.740 |
| | | Durangaldea | 2.720 | 15.873 | 685 | 19.278 |
| | | Enkartazioak | N.R. | 5.678 | | 5.717 |
| | | Gernika-Bermeo | N.R. | 5.787 | 990 | 6.887 |
| | | Bilbo Handia | 13.405 | 985.217 | 5.403 | 1.004.024 |
| | | Markina-Ondarroa | N.R. | 2.744 | 661 | 3.785 |
| | | Plentzia-Mungia | N.R. | 11.634 | | 11.885 |
| | GUZTIRA | | 19.419 | 1.035.158 | 7.739 | 1.062.316 |
| | GIPUZKOA | Debagoiena | 4.155 | 504 | 710 | 5.369 |
| | | Bidasoa Beherea | N.R. | | 15.062 | 15.358 |
| | | Debabarrena | N.R. | 1.874 | 5.308 | 7.260 |
| | | Donostialdea | 5.219 | 1.830 | 539.157 | 546.207 |
| | | Goierri | N.R. | N.R. | 10.723 | 10.959 |
| | | Tolosaldea | 719 | N.R. | 11.895 | 12.925 |
| | | Urola Kosta | N.R. | N.R. | 14.257 | 14.594 |
| | GUZTIRA | | 10.688 | 4.873 | 597.112 | 612.672 |
| | | GUZTIRA EAE | 731.547 | 1.047.699 | 607.834 | 2.387.079 |
| Kanpokoak | | | 15.379 | 11.290 | 3.123 | 29.792 |
| Guztira | | | 746.926 | 1.058.988 | 610.957 | 2.416.871 |

[3] Eskualde-deskripzioaren ondorioetarako ez adierazgarritzat jo dira 500 lekualdaketa edo gutxiago. Alabaina, multzo edo kolektibo horiek mantendu egin dira beren guztizkoetan, bai errenkadan eta bai zutabean.

Hiriburuetarako desplazamenduen erdiak Bilbo du helburu, %43,8rekin. Gasteiza %30,9 iristen da eta Donostiara gainerako %25,3.

Hiriburuetarako desplazamenduak egiteko garraiobideen araberako banaketari dagokionez, denen artean automobila da nagusitzen dena, desberdintasun esanguratsuak gertatzen diren arren, jarraian datozen tauletan ikusten den bezala.

## Taula 41

### Gasteiza sartzeko desplazamenduak

| | Probintzia | Eskualdea | Ez motorizatuak | Trena | Autobusa | Automobila | Besteak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | ARABA | Kantauri Arabarra | | | | 4.535 | | 4.535 |
| | | Gorbeia Inguruak | 546 | | N.R. | 12.090 | | 12.687 |
| | | Arabako Lautada | N.R. | N.R. | 3.031 | 8.994 | N.R. | 12.692 |
| | | Arabako Mendialdea | | | N.R. | 2.252 | N.R. | 2.510 |
| | | Arabar Errioxa | | | N.R. | 677 | N.R. | 1.113 |
| | | Arabako Bailarak | | | N.R. | 3.618 | | 3.745 |
| | GUZTIRA | | 685 | 338 | 3.627 | 32.166 | 465 | 37.281 |
| | BIZKAIA | Arratia-Nerbioi | | | | 2.515 | | 2.515 |
| | | Durangaldea | | | | 2.720 | | 2.720 |
| | | Enkartazioak | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Gernika-Bermeo | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Bilbo | | | 2.559 | 2.062 | N.R. | 5.066 |
| | | Bilbo Handia | | 865 | 3.079 | 4.395 | | 8.339 |
| | | Markina-Ondarroa | | | | N.R. | N.R. | N.R. |
| | | Plentzia-Mungia | | | | N.R. | | N.R.. |
| | GUZTIRA | | | 865 | 5.637 | 12.298 | 620 | 19.419 |
| | GIPUZKOA | Debagoiena | | | 1.039 | 3.116 | | 4.155 |
| | | Bidasoa Beherea | | | N.R. | | | N.R. |
| | | Debabarrena | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Donostia | | N.R. | | 4.149 | N.R. | 4.540 |
| | | Donostialdea | | N.R. | | N.R. | | 679 |
| | | Goierri | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Tolosaldea | | | | 627 | N.R. | 719 |
| | | Urola Kosta | | | | N.R. | | N.R. |
| | GUZTIRA | | | 514 | 1.335 | 8.593 | 247 | 10.688 |
| | | GUZTIRA EAE | 685 | 1.717 | 10.599 | 53.057 | 1.331 | 67.388 |
| Kanpokoak | | | | | 668 | 14.236 | 475 | 15.379 |
| Guztira | | | 685 | 1.717 | 11.267 | 67.293 | 1.806 | 82.767 |

## Taula 42

### Bilbora sartzeko desplazamenduak

| | Probintzia | Eskualdea | Ez motorizatuak | Trena | Autobusa | Automobila | Besteak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | ARABA | Kantauri Arabarra | | 1.202 | N.R. | 1.446 | | 2.856 |
| | | Gorbeia Inguruak | | | N.R. | | | N.R. |
| | | Vitoria-Gasteiz | | | 2.513 | 1.583 | N.R. | 4.541 |
| | GUZTIRA | | | 1.202 | 2.991 | 3.030 | | 7.668 |
| | BIZKAIA | Arratia-Nerbioi | | 4.752 | N.R. | 3.217 | | 8.225 |
| | | Durangaldea | | 4.080 | 1.509 | 10.014 | N.R. | 15.873 |
| | | Enkartazioak | | 2.083 | 527 | 2.943 | N.R. | 5.678 |
| | | Gernika-Bermeo | | N.R. | 963 | 4.432 | | 5.787 |
| | | Bilbo Handia | 7.577 | 84.824 | 23.686 | 105.646 | 7.052 | 228.785 |
| | | Markina-Ondarroa | | | 925 | 1.819 | | 2.744 |
| | | Plentzia-Mungia | | 954 | 1.351 | 9.329 | | 11.634 |
| | GUZTIRA | | 7.577 | 97.085 | 29.216 | 137.400 | 7.449 | 278.726 |
| | GIPUZKOA | Debagoiena | | | | 504 | | 504 |
| | | Debabarrena | | N.R. | 1.147 | 522 | | 1.874 |
| | | Donostia | | | N.R. | 1.162 | | 1.433 |
| | | Donostialdea | | | N.R. | N.R. | | N.R. |
| | | Goierri | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Tolosaldea | | | | N.R. | | N.R. |
| | | Urola Kosta | | | | N.R. | | N.R. . |
| | GUZTIRA | | | 204 | 1.629 | 3.040 | | 4.873 |
| | | GUZTIRA EAE | 7.577 | 98.491 | 33.835 | 143.469 | 7.894 | 291.267 |
| Kanpokoak | | | | | 695 | 10.427 | 167 | 11.290 |
| Guztira | | | 7.577 | 98.491 | 34.531 | 153.896 | 8.061 | 302.556 |

Gasteizen kasuan, hiribururako desplazamenduen %81,3 ibilgailu pribatu bidez egiten da eta probintziatik datozen desplazamenduen %68,1 Lautadan eta Gorbeialdean sortzen da. Kanpotik, Bilbo Handia nagusitzen da, 13.405 desplazamendurekin, hau da, lurraldetik kanpo sortu eta hiribura iristen diren desplazamenduen %29,5. Gipuzkoan Debagoieneko eskualdea eta Donostia dira hiribururako bidaia gehien sortzen dutenak.

Bilbora iristen direnak, berriz, lurraldetik bertatik etortzen dira nagusiki (92,1%). Uste izatekoa denez, Bilbo Handian sortzen dira desplazamendu gehien-gehienak. Eskualde hori alde batera utzita, nabarmendu behar dira Durangaldea eta Plentzia Mungia. Hala ere, beste bi hiriburuekiko dagoen alderik handiena da automobilaren presentzia, handia izan arren, bigarren mailan geratzen baita, zeren eta soilik hiribururako desplazamenduen %50,9 iristen baita modu hori erabiliz. Probintziatik bertatik hiribura egindako desplazamenduetan, portzentaje hori %49,3ra jaisten da, batez ere trenbideei esker, eskaintza hori oso garatua baitago bidaia gehien sortzen duen eskualdean.

## Taula 43

### Donostiara sartzeko desplazamenduak

| | Probintzia | Eskualdea | Ez motorizatuak | Trena | Autobusa | Automobila | Besteak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | ARABA | Vitoria-Gasteiz | | | N.R. | 2.501 | N.R. | 2.877 |
| | | Arabako Lautada | | | | N.R. | | N.R. |
| | GUZTIRA | | | | | 2.608 | | 2.983 |
| | BIZKAIA | Durangaldea | | N.R. | | N.R. | | 685 |
| | | Gernika-Bermeo | | | | 990 | | 990 |
| | | Bilbo | | | 585 | 2.156 | N.R. | 3.056 |
| | | Bilbo Handia | | N.R. | 880 | 1.145 | | 2.347 |
| | | Markina-Ondarroa | | | | 661 | | 661 |
| | GUZTIRA | | | 582 | 1.465 | 5.377 | | 7.739 |
| | GIPUZKOA | Debagoiena | | | N.R. | N.R. | | 710 |
| | | Bidasoa Beherea | N.R. | 3.514 | 1.284 | 9.777 | N.R. | 15.062 |
| | | Debabarrena | | N.R. | 732 | 4.414 | | 5.308 |
| | | Donostialdea | 3.185 | 13.056 | 13.752 | 50.445 | 4.202 | 84.640 |
| | | Goierri | | 2.195 | 1.822 | 6.706 | | 10.723 |
| | | Tolosaldea | | 2.412 | N.R. | 8.997 | N.R. | 11.895 |
| | | Urola Kosta | | 1.407 | 1.454 | 11.395 | | 14.257 |
| | GUZTIRA | | 3.411 | 22.746 | 19.453 | 92.207 | 4.778 | 142.594 |
| | | GUZTIRA EAE | 3.411 | 23.328 | 21.139 | 100.192 | 5.247 | 153.317 |
| Kanpokoak | | | | | 614 | 2.281 | 227 | 3.123 |
| Guztira | | | 3.411 | 23.328 | 21.753 | 102.473 | 5.474 | 156.439 |

Kanpotik, Araban sortzen dira 7.668 desplazamendu, eta horien erdia baino gehiago Gasteizen (%59,2) eta Kantauri Arabarran (%37,2) sortzen dira. Nabarmentzeko modukoa da eskualde honetan norainokoa den trenbidearen erabilpena.

Donostiarako desplazamenduak Donostialdetik datoz batez ere. Probintziako gainerako eskualdeei dagokienez, modu homogeneoan banatzen dira, salbu-eta Debagoienaren kasuan, Debagoienaren presentzia txikia baita. Eskualdeaz kanpoko eremuei dagokienez, Bilbo Handiak eta Gasteizek badute aipatzeko moduko pisua.

Hiribururako desplazamenduen %65,5 automobilez egien dira, eta probintziatik datozenen artean, %15,9 trenbidez dator eta %13,9 autobusez.